

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

EKONOMIA SUSTAPENAREN, ENPLEGUAREN, MERKATARITZAREN ETA TURISMOAREN SAILA

Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zinegotzi ordezkariak 2022ko apirilaren 26an emandako ebazpena, zeinaren bidez izendatzen baitira "2022an Gasteizen ikus-entzunezko proiektuak (fikzioa, animazioa, dokumentalak nahiz telesailak) gauzatu eta ekoizteko eta gidoiak idazteko laguntzak" deialdiko balioespen-batzordeko kideak

Aintzat hartu da Tokiko Gobernu Batzarrak 2022ko martxoaren 18an hartutako erabakia, non onetsi baitziren Gasteizen, 2022an, ikus-entzunezko proiektuak gauzatu eta ekoizteko eta gidoiak idazteko dirulaguntzetarako deialdia eta hori arautzeko oinarriak.

Zortzigarren oinarriaren ildotik, Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Sailari dagokio oinarri hauetan aurreikusten diren laguntzak kudeatzea. Batzorde tekniko bat eratuko da horretarako, honako hauek osatua, Gizon eta Emakumeen berdintasunari buruzko 4/2005 Legearen 7.3 artikuluan xedatutakoari jarraituz:

– Lehendakaria: - Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko Enpresen Zerbitzuko burua edo hark ordezkari izendatzen duena.

– Epaimahaikideak: deialdiak hartzen dituen alorretako hiru aditu profesional, Gasteizko Udalak izendatuak.

– Idazkaria: Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko teknikari bat, ahotsa bai baina botorik gabe.

Enpresen Udal Zerbitzuko buruak 2022ko apirilaren 6an egindako proposamen teknikoa aintzat harturik, eta deialdiaren zortzigarren oinarrian xedatutakoaren ildotik,

Ebatzi dut

Lehena. Balioespen-batzordeko kideak izendatzea eta batzordearen osaera argitaratzea. Zehazki:

- Lehendakaria: Juncal Ibeas Larrañaga, Enpresen Udal Zerbitzuko burua.
- 1. kidea 1. Gentzane Martínez de Osaba, produktore exekutiboa.
- 2. kidea . Xegun Altolagirre Auzmendi, gidoigilea.
- 3. kidea. Zuri Goikoetxea González, produktorea.
- Idazkaria: Ana Ruiz Gallardo, Enpresen Zerbitzuko teknikaria.

Bigarrena. Erabaki hau ALHAOn argitaratzeko agintzea, denek izan dezaten horren berri.

Vitoria-Gasteizen, 2022ko maiatzaren 4an

Administrazio Zerbitzuko burua
IGNACIO CEPEDA CRESPO